

Aspaldiko oroitzapenean betikotuta

Hogeita bi urte izango nituen Joxe Azurmendirekin lehen hartu-emanan izan nuenean. Hura izen handiko intelektuala zen ordurako, eta nik diseinu lanak eta antzeko gauza xumeak egiten nituen *Argia* aldizkarian. Halaxe heldu zitzaidan *Schopenhauer, Nietzsche eta Spengler Jon Miranderen pentsamenduan* saiakeraren azala egiteko enkargua. Garai hartan epe estua eta baliabide gutxi izaten genituen horretarako, eta prozesuak askoz ere artisauagoak izaten ziren orain baino.

Gogoan dut hamaika kezka eta galdera otu zitzaizkidala enkarguari heldu nionean, gehientsuenak diseinuari lotuak. Esate baterako, nola demontre egituratu behar ote nuen 17x24 zentimetroko espazio hura halako izenburu ezin luzeagoa sartzeko. Edo liburu dibulgatzaile *normal* bat izan behar bazuen (eta ez unibertsitateko tesi lan bat, adibidez), kolore biziak, kontrasteak eta letra tipo jostariagoak komeniko ote zitzaizkion, ez ote ziratekeen nabarmenegi geldituko molde horretako liburu sakon batean (dibulgaziorako izanagatik ere). Eta baziren galdera kontzeptualagoak ere, Azurmendik hartzen zuen dimentsio alimalekoari zuzenki lotuak, oroz gainetik bi. Alde batera, zer gisako adimena behar ote zen halako liburu bat bururatu, egituratu eta idazteko. Eta, bestera, inoiz izango ote nintzen gai, iritsiko ote nintzatekeen, haren pentsamenduak hartzen zuen eremua bere zabalean ulertzeko.

Azal hark nahi baino buruko min handiagoa eragingo zidala iruditu zitzaidan lehen kolpean. Susmoa hartu nion proposamen oro botako zidatela atzera, eta behin eta berriz errepikatu beharko nuela lana, liburuaren egileari, Joxe Azurmendiri, alegia, ez zitzaiolako erraz sartuko begietatik. Imajinatu nuen gizonezko tinko, argi, zehatz eta perfekzionista bat izen arrotzez jositako izenburu luze horren atzean. Dena esan behar bada, beldurrak hartu ninduen, inoiz ez baitut errefusak ongi hartzen jakin, eta horretara kondenatuta ikusten nuen nire burua.

Alabaina, ez zen horrelakorik gertatu. Nire harridurarako, erakutsitako lehen proposamena eta bera onartu zuen haren liburuaren aurpegia izan zedin –zin dagit aski harrigarria izaten dela hori diseinatzailearen langintzan–. Editoreak aurreratu zidana Azurmendik berak berretsi zidan behin baino gehiagotan –baita urteak pasatuta ere–, eta niri, erraz konformatzen denaren erreakzioa baino gehiago, gizon atsegin, abegikor eta eskuzabal baten keinua iruditu zitzaidan.

Denbora luzea joan da geroztik. Tarte horretan, plazaratu dituen berrogei liburuetarik batzuk irakurri ditut, haren ibilbideari erreparatu diot, haren produkzioaren berri ematea egokitu zait (baita haren heriotzaren berri ematea ere), haren izena daraman katedrari jarri diot arreta, haren lana aztertu eta digitalizatu dutenez idatzi dut. Pentsatuz gero, asko izan dira Azurmendiren ardatzaren biran egindako gauza-txoak, eta aldiko-aldiko izan dut gauza berri bat ikasteko, deskubritzeko, garatzeko, haren figuraren inguruan. Baina *Schopenhauer, Nietzsche eta Spengler Jon Miranderen pentsamenduan* saiakeraren azala egin nueneko hartan nagusitu zitzaidan sentsazioak bere horretan iraun du urte hauetan guztietan: gizon eskuzabal, atsegin eta abegikor bat izango da beti, alimaleko dimentsioa duen pentsamendua eskura utzi ziguna.